



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GUTXITASUN FISIKOA ETA/EDO
ORGANIKOA DUTEN PERTSONEN KONFEDERAZIO KOORDINATZAILEA

28

PROPOSAMEN DATORREN LEGEALDIRAKO

NAZIO BATUEN KONBENTZIOAK DESGAITASUNAK DITUZTEN
PERTSONEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO JASOTA DITUEN
KONPROMISOEKIN BAT EGITEKO ALDERDI POLITIKOEI EGITEN
DIEGUN ESKARIA

ELKARTEAN, Euskal Autonomia Erkidegoko Desgaitasuna duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea gara. **16.000 bazkide** ordezkatzeko ditugu, eta haien **eskubideak eta interesak defendatzea** da gure betebeharra. **Aukera berdintasuna zein irisgarritasun unibertsala** bermatuz, gure bazkideen **bizimodu independentea** garatzeko eta **partaidetza aktiboa** sustatzeko lanean ari gara Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako ordezkartzetan: *Eginaren Eginez* (Araba), *elkartu* (Gipuzkoa) eta *FEKOOR* (Bizkaia).

Egun bizi dugun gizarte, ekonomia eta osasun krisialdi egoeraren aurrean, **alderdi politiko guztiei exigitzen diegu gure kolektiboak bereganatu dituen eskubideak, zerbitzuak eta prestazioak ez murriztea**. Era berean, **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazio Batuetako Hitzarmenak jasotzen dituen eskubideak bermatzeko eskaera luzatzen diegu**. Hauek dira **ELKARTEAN** osatzen dugun erakundeok egiten ditugun proposamenak:

Bizimodu independentea

NON, NOLA ETA NOREKIN BIZI NAHI DUGUN erabakitzeko es-
kubidea. Aukera berdintasuna bermatuz, bizimodu-sistema jakin
baten arabera bizitzeko lotura gabe; gizarte erabat inklusibo eta
irisgarrian; komunitatean isolatuta edo bananduta egotea saihes-
tuko duten eta gure partaidetza aktiboa bermatuko duten beha-
rezko baliabide eta laguntzekin.

1

LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA BERMATUA bizimodu independentea garatu eta komunitatean parte hartzeko. Laguntzaile pertsonalen lan-poltsa sortu eta kontratazio-kudeaketa errazteko baliabide publikoak bideratu. Era berean, titulazio eta kontratazio eskaerak malgutu norberak laguntza-langileak aukeratu ahal izateko. Desinstituzionalizazioa sustatzeko, laguntza-pertsonala zerbitzu eta prestazio guztiekin bateratu.

2

EGOITZETAKO ARRETA EREDUA ERALDATU, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari zerbitzu eta prestazio eskaintza zabaltzeko, dibertsifikatzeko eta malgutzeko. Eta bide batez, aldaketa horiek bizimodu independentea garatzera eta desinstituzionalizazioa sustatzera bideratu.

3

FAMILIA ZAINTZA DUIN BIHURTU erabateko aitortza lortu arte, bai erakundeena eta baita gizartearena ere. Besteak beste, Familia-inguruneko zainketa laguntzeko prestazio ekonomikoa (FIZPE) jasotzeko bidea erraztuz eta gizarte babeserako sistemen estaldura zabalduz.

4

ETXEBIZITZA DUINA, EGOKIA ETA IRISGARRIA, baldintza horiek betetzeko neurri eta laguntza publikoak sustatuz, eta jabetza horizontalaren esparruan, mugikortasun arazoak dituzten pertsonen bakartze eta konfinamendu egoerak saihesteko beharrezkoak diren irisgarritasun baldintzak bete daitezela exigituz.

5

BEHARREZKO DIRU SARRERAK BERMATU, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren garapen egokiarekin. Hau da, desgaitasunak eragiten dituen gainkostuak kontuan hartzea eta beste laguntzekin bateragarriak egitea: etxeko-laguntzak, prestazio ekonomikoa edo pentsioa desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea garatzeko eta erabateko inklusiora gerturatzeko.

irisgarritasun unibertzala

INGURU, PROZESU, ONDASUN, PRODUKTU ETA ZERBITZU GUZTIAK, baita objektu, tresna, erreminta eta gailuak ere, pertsona ororentzat ulergarriak, erabilgarriak eta bideragarriak izateko eskubidea, segurtasun eta erosotasunez, eta ahalik eta modurik autonomo eta naturalenean.

6

IRISGARRITASUNAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTRATEGIAREN GARAPENA, esparru guztietan garatu ahal izateko ekintza-planarekin eta beharrezkoa den diru-ekarpenarekin: espazio publikoa, garraioa, eraikuntza, hezkuntza, osasuna, aisialdia, kultura, kirola, eta abar. Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta Udaletxeetako departamendu guztiek, modu transbertsean, aintzat hartuko duten konpromisoarekin eta Estrategiaren garapenean parte hartzen duten eragile guztiak (arkitektoak, ingeniariak, hirigintza eta diseinua, epaile eta fiskalak, udaletxeetako teknikariak, eta abar) inplikaturik eta legea betearaziz.

7

ARRAZOIZKO DOIKUNTZA KONTZEPTUAREN APLIKAZIO BATERATUA ESPARRU GUZTIETAN; Hitzarmena tartean bada, irisgarritasun printzipioa ezinbestean bete beharreko baldintza da, aitzakiarik gabe eta bereizi gabeko aplikazioa ezabatuz. Kasu berezietan aplika daitekeen kontzeptua da, norbanakoaren beharrak asetzeko aldaketak eskatzen direnean, eta beste irizpide batzuen aldean, aldaketa ez egiteak pertsona bakoitzarengan dituen ondorio diskriminatzaileak kontuan hartuz.

8

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA BERMATU GARRAIORAKO AZPIEGITURA ETA GAILU BERRIEN DISEINUAN. Euskal Autonomia Erkidegoan, EAEko hiru lurraldetan, lurralde arteko loturetan, edo beste Autonomia Erkidego edo herrialdeetako loturetan: AHT eta gainerako garraio azpiegiturak (trenbide sarea, errepide sarea, ibai-garraioa, itsasoan edo hegazkinez egiten diren bidaiak).

enplegu arrunta

Gainerako pertsonen baldintza berdinetan LANA EGITEKO eskubidea. Hau da, askatasunez aukeratutako edo onartutako lan-jardunaren bidez gure bizimodua ateratzeko eskubidea, desgaitasuna duten pertsonentzako lan-merkatu eta lan-inguru IREKI, INKLUSIBO eta IRISGARRIAN.

9

ENPLEGU BABESTUAREN 168/2019 DEKRETUAREN, ENPRESA ARRUNTETAN LAN-MUNDUAN TXERTATZERA BIDERATUTAKO NEURRIAK ETA KONTRATATUTAKO PERTSONEN LANPOSTUAK MANTENTZEKO LAGUNTZA NEURRIAK PAREKATU. Hitzarmenaren 27. artikulua eta Enpleguaren Euskal Estrategiak 2020 dokumentuak ezinbestekotzat jotzen dute enplegurako sarbidea bermatzeko. Era berean, COVID-19ak sortu duen krisi ekonomikoaren eta giza krisialdiaren eraginez gerta litezkeen lanpostu galera ekiditeko.

10

50 LANGILE EDO GUTXIAGO DITUZTEN ENPRESEN EDO KOOPERATIBEN KASUAN (gehienak, EAEko enpresa egiturakoak) **DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEI ENPLEGUA ERRESERBATZEKO BERARIAZKO ARAUTEGIA GARATU** eta desgaitasuna duten pertsonen **AUTOENPLEGUA eta EKINTZAILETZA** sustatu.

11

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN LANPOSTUAK MANTENTZEKO IRIZPIDE GARBIAK BERMATU ETA INDARREAN JARRI aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak (ABEEE) Enplegu Erregulazioko Espedienteak bihurtzeko arriskua dagoenean edo bestelako kontratu murrizketak ematen direnean.

12

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK ENPLEGU PUBLIKOAN ARITZEKO SARRERA BERMATU lanpostu eta fase guztietan neurri eta baldintza bereziak ezarriz (enplegu poltsa, sarrera frogak, sustapena eta mantenua), funtzionario izan edo ez izan. Deialdi orokorretan aukera berdintasunaren printzipioa lehenetsi eta gaitasun-frogetan edozein eskakizun baztertzaile ezabatu, baita enplegu-publikoan desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke frogaren berezietan ere.

13

LANERAKO ORIENTABIDEEN KUDEAKETA PUBLIKOA BERMATU desgaitasuna duten pertsonen eta gainerako herritarrei, guztiei modu berean. Neurria bideratzeko beharrezkoak diren baliabideak LANBIDE-SVEren esku jarri.

14

LANPOSTUAK EGOKITZEKO ALDAKETAK ERAGINETA BERRIKUNTZATEKNOLOGIKOA SUSTATU desgaitasuna duten pertsonen lana egiteko aukera emateko.

hezkuntza inklusiboa

Ikasketa maila eta jarduera guztietan HEZKUNTZA-ESKAINTZA ETA INGURU erabat inklusibo eta irisgarria izateko eskubidea: eskolako eta eskolaz kanpoko jardueretan, jolasgaraian, irteeretan, jangela-zerbitzuan, eskola-garraioan, eta abar.

15 **LAGUNTZAK, SENDOTZEKO PROGRAMAK ETA BAKARKAKO EGOKITZAPENAK BERMATU** desgaitasuna duten pertsonak bere ikasketa prozesua garatzeko eta helburuak zein espektatibak aukera berdintasunean gauzatzeko baliabideak eskainiz.

16 **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI HEZKUNTZAREN DIGITALIZAZIO PROZESUAN PARTE HARTZEKO AUKERA BERMATU** tresna teknologikoak egokituz, bakoitzaren beharrak kontuan hartuta eta gainkosturik gabe.

17 **ORIENTABIDE EGOKIA BERMATU** norberaren izaera, gaitasunak eta konpetentziak ahalik eta gehien garatzeko, beti ere pertsona bakoitzaren beharretara eta etorkizuneko espektatibetara egokituta. Enplegu babestura edota lan-jardun bereizleetara bideratutako aukerak ez lehenetsi.

18

HEZKUNTZA-ESKAINTZAREN ETA LAN-MUNDUAREN ARTEKO LOTURA BERMATU desgaitasuna duten pertsonentzako irekiak, inklusiboak eta irisgarriak diren hezkuntza-eremuetan. Bereziki, Lanbide Heziketaren alorrean, enpresa arruntetan praktikak egiteko aukera bermatuz.

19

IRISGARRITASUN ARAUAK BETETZEN DIRELA BERMATU. Ikasketa maila eta azpiegitura guztietan; espazio edota ikastetxeetako gailu guztietan; Lanbide Heziketako praktikak egiten dituzten enpresa arruntetan, eta abar.

20

BEKA ETA LAGUNTZA SISTEMAK BERMATU. Eta kontuan har daitezela desgaitasunak dakartzan gainkostuak, eta pertsonok libreki erabakitzeko dugun eskubidea.

emakumea

Gizonen eskubide berdinak izan eta gauzatzeko eskubidea, faktore ezberdinak tarteko pairatzen dituzten era guztietako diskriminazioak gaindituz. Egoera iraultzeko zeharkako ikuspuntua txertatzea ezinbestekoa da, genero-ikuspuntua desgaitasun politiketan txertatuz, eta alderantziz, desgaitasuna genero-politiketan.

21

ALDIZKAKOTASUNAREN PRINTZIPIOA AINTZAT HARTU ETA POLITIKA, JARDUERA ETA NEURRI GUZTIETAN GENERO ETA DESGAITASUN IKUSPUNTUA TXERTATU desgaitasuna duten emakume eta haurren parte-hartze eskubidea bermatuz, aukera berdintasunean eta bizitzako esparru guztietan euren aldeko neurriak hartuz: bizimodu independentea, enplegua, irisgarritasun unibertsala, hirigintza, osasuna, formazioa, hezkuntza, aisialdia, kultura, kirola, gizarte zerbitzuak, eta sexu- eta ugalketa-eskubideak.

22

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN BEHARRAK ETA ERREALITATE BEREZIA KONTUAN IZAN GENERO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN prebentziorako, arretarako eta zaintzarako politiketan, eta kontuan izan askotarikoak direla jasaten dituzten indarkeria motak eta askotarikoak direla erasotzaileak.

osasuna

Osasun-maila gorenaz gozatzeko eskubidea, DESGAITASUNAK eragindako diskriminaziorik gabe; osasun-arreta egokia, onargarria, eskuragarria, kalitatezkoa eta asebetegarria bermatuz.

23

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI ZERBITZUA, FROGA DIAGNOSTIKOAK ETA TRATAMENDUA BERMATU; Osasun Sistematan, bazterketarik gabe eta aukera berdintasunean.

24

IRISGARRITASUN BALDINTZAK BERMATU sarrera, harrera, tratamendu, azpiegitura, tresna, mediku azterketa eta diagnostikoetara. Gauza bera, arreta sanitarioko eraikin eta maila guztietan (lehen mailakoa, ospitalekoa, larrialdietakoa...). Bereziki, Arartekoak *EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa txostenean nabarmendutako gabezietan, bestelako zentro, zerbitzu eta espazioak ahaztu gabe.*

25

LAGUNTZA PRODUKTUEN, LAGUNTZA TEKNIKOEN ETA MATERIAL ORTOPROTESIKOAREN ESKAINTZA HOBETU katalogoa zabaltzeko, dibertsifikatzeko eta bezero bakoitzaren neurrira egokitzeko. Diru-laguntzak areagotu, desgaitasunak dakarren gainkostua kontuan hartuz. Espainiako Arautegiko (Orden SCB/45/2019) elementuak txertatu, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoan adostu diren bermeak eta lorpenak hobetzeko badira.

26

GIZARTE ZERBITZU SISTEMAREKIN KOORDINAZIOA EGOKIA BERMATU, EREMU SOZIOSANITARIOAREN GARAPEN ERAGINKORRAGOIA LORTZEKO eta gaixotasun kronikoen arreta areagotu, besteak beste, errehabilitazio zerbitzua pertsonalizatuz edota ospitale-altak jaso ondoren baliabide egokiak eskainiz.

izaera

orokorrekoak,

aurreko esparru

gustietan

aplikagarriak.

27

BEHATOKI, ESTADISTIKA, IKERKETA ETA TXOSTEN guztietan desgaitasunaren aldagaia modu orokor eta zeharkakoan txertatu: datuak biltzeko metodologian, datuen erabileran, esparru guztietako azterketa eta argitalpenetan... Eta desgaitasun mota, desgaitasun maila edo genero ikuspegia bezalako aldagaiak kontuan hartu.

28

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRUGARREN GIZARTE SEKTOREKO ENTITATEEN BENETAKO PARTE-HARTZEA BERMATU esparru guztietan, Euskadiko Hirugarren Sektoreari buruzko Legeak Elkarrizketa Zibilerako eta Gobernantzarako oinarrietan jasotzen duen bezala: politika eta jardueren planifikazioan, ekuzioan eta ebaluzioan.



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GUTXITASUN FISIKOA ETA/EDO
ORGANIKOA DUTEN PERTSONEN KONFEDERAZIO KOORDINATZAILEA

www.elkartean.org